

KONTROL MOZIOA

Hipika Bidean sortzen diren trafiko arazoak direla eta

Juan Karlos Izagirre Hortelanak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko maiatzaren 20an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Loiolako Hipika Bide aldean arazo larriak dituzte irisgarritasun aldetik, bai oinezkoentzat bai ibilgailuentzat. Eskatua dute aspaldi igogailua, errepide zati hori oinez egin behar ez izateko, baina ez dute horri buruz erantzunik jaso.

Errepidea, Hipika Bideko 8-16 zenbakien parean, oso estua da, eta gainera oinezkoek errepidea ibilgailuekin partekatu behar dute, ezinbestez, ez dagoelako beste aukerarik etxeetara igotzeko.

Horrek guztiak arriskua egoera sortzen du oinezkoentzat eta kotxeentzat (ez dira bi kotxe kabitzen errepidean, are gutxiago kamioiak badabiltza). Karga handiko kamioiak etengabe gabe pasatzen baitira, eta arazoak biderkatzen dira. Dirudienez, Martutene aldera dagoen harrobi batera doazen eta handik datozen kamioiak dira gehienak.

Honi guztiari buruz galdetu genuen batzordean eta hiru kontu aipatu zizkigun zinegotzi ordezkariak.

Lehenik, eremuaren jabetza. Jabetzari dagokionez, pribatua dela esan zigun zinegotziak. Baieztapena zalantzazkoa da, gutxienez, errepideak erabilera publikoa baitu. Eta nolana ere, Udalaren eginkizuna da oinezkoen segurtasuna bermatzea.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Bigarrenik, harrobira bideratzen diren kamioientzako sarrera bakarra hori dela aipatu ziguten batzordean, ez dagoela beste sarrerarik. Hori bai, irail aldean, Renfeko lanak direla-eta, bestelako alternatiba bat bilatu beharko zaiela kamioi horiei. Bertakoek diotenez, beste sarrera/irteera bat erabili izan da, Martutene aldera, eta oraingo kamioi-fluxua ez dela aurretik eman. Edozein kasutan, soluzioa bilatu behar da egoera arriskutsu hau saihesteko.

Hirugarrenik, igogailuari dagokionez. Igogailu hori ez dagoela gaur egun mugikortasun bertikaleko plan zuzendarian, baina HAPOn lanketan plan hori berrikusi behar denez, bertan sartzeko aukera aztertu daitekeela.

Esanak esandakoak ere, errepide horretan dagoen autoen erabilera eta pisu handiko kamioien joan etorria direla eta, ezinbestekoa ikusten dugu neurriak hartzea bizilagunen segurtasuna bermatzeko.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari hartu beharreko neurriak hartzeko Hipika Bideko abiadura moteltzeko, kamioien joan-etorriak mugatzeko eta oinezkoentzako espaloia seguru egiteko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari etorkizunean egin behar den Mugikortasun Bertikaleko Plan Zuzendarian Hipika Bideko etxeetarako igogailua sartzeko.

Donostian, 2024ko maiatzaren 24an

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko zinegotzia